

# Comunicado leído en rueda de prensa por familiares de víctimas de la violencia policial



En estos días el Tribunal Constitucional Español ha resuelto el recurso interpuesto por el Partido Popular contra la Ley Foral de reconocimiento a las víctimas de motivación política producida por grupos de extrema derecha o funcionarios públicos. Ley Foral que fue aprobada por el Parlamento Navarro en los últimos días de la anterior legislatura. La sentencia, con cuatro votos discrepantes, es la de la práctica derogación de la ley. El motivo señalado es que esta ley pretendía de alguna forma sustituir la acción de los tribunales de este supuesto estado de derecho, permitiendo que la investigación de delitos provocados por los funcionarios públicos y otros grupos para-policiales se realizase al margen de la judicatura.

Esta ley, cuando fue recurrida, quedó en suspenso salvo en lo que se refiere a la posibilidad de homenajear a las víctimas y poco más. Así, 18 de febrero de 2017 se realizó un homenaje en el que participamos algunos familiares. Eso sí, dicho acto de reconocimiento debía ser de carácter genérico, y no pudieron ser expresamente mencionados ni casos ni nombres.

Nunca habría hecho falta una ley con estos contenidos si alguna vez la judicatura hubiera hecho el trabajo que tiene encomendado, es decir, buscar a los culpables de hechos delictivos, juzgarlos, por supuesto con justicia, y condenarlos a una pena justa a su delito probado. Sin embargo nos tiene acostumbrados al sobreseimiento de causas en las que estén implicados cualquier miembro de las fuerzas de seguridad; y, en el mejor de los casos, a condenas y penas ridículas e insultantes, si no es que finalmente resultan indultados.

La sentencia del TC era previsible, pero no por ello deja de herir nuestra dignidad. Y decimos lo de previsible porque tenemos en la memoria reciente casos que en diversos estamentos judiciales se han resuelto de una forma que ha producido en la sociedad una reacción de asco y repulsa. Nos referimos a sentencias como la del caso Altsasu, que convierte una simple pelea de bar en un delito con altas peticiones de años de cárcel; o como la de la Manada, en la que una violación grupal resulta en un simple abuso sexual. Las diversas fiscalías del Estado también nos tienen acostumbrados a actuar de oficio solo contra expresiones que incluyan la monarquía, el gobierno o supuestas exaltaciones del terrorismo, y se "olvidan" de actuar contra grupos y asociaciones de carácter fascista y de extrema derecha.

El cambio de Gobierno en la comunidad foral supuso para nosotras el final institucional de muchos años de silencio y olvido. Recibimos con alegría la creación de la oficina de paz, convivencia y derechos humanos. Algunas fuimos convocadas al parlamento foral a explicar nuestros casos en comisión parlamentaria durante el proceso de elaboración de la ley hoy anulada. Por supuesto, pensamos que tanto las actuaciones del Gobierno de Navarra como las de la oficina de paz y convivencia son mejorables, pero mantenemos una línea de comunicación estable y que era totalmente impensable hace pocos años.

No es así en cuanto al Gobierno central. Para nosotras da igual quien gobierne, siempre nos encontramos con una oposición total a nuestras reivindicaciones, con un muro de impunidad formado por el PSOE y el PP. Así tapan sus respectivas vergüenzas de guerra sucia o terrorismo de estado. No importa lo que voten en el parlamento de Navarra, sus direcciones y las de sus aliados en Madrid siempre dan una respuesta contraria y obstruccionista.

Esta ley ya entró con prisas en las últimas semanas del anterior Gobierno de UPN, con Yolanda Barcina como presidenta, y promovida por I.E. No era una ley perfecta, por supuesto mejorable, pero era nuestra ley, la que aprobaron nuestros representantes en el Parlamento Foral. Además del reconocimiento y la reparación dejaba puertas abiertas a la creación de comisiones que investigasen casos que la justicia ordinaria había dejado en el olvido.

La anulación de prácticamente todo el articulado supone, independientemente de lo que nos afecte a las víctimas de la violencia policial, un atentado a la soberanía de nuestro Parlamento y por ende a la de todxs lxs navarrxs. Otra más a añadir a la amplia lista de leyes navarras recurridas por Madrid.

En ningún caso es nuestra pretensión convertirnos en legisladores, y mucho menos en jueces, o influir en decisiones de una futura ley de víctimas de violencia policial, aunque sí ser escuchadas. Las víctimas no debemos tomar parte en decisiones que atañen exclusivamente al poder legislativo. Que las víctimas fuesen jueces o legisladores de sus propios victimarios ya estaba prohibido en el derecho romano y con razón: nuestras trágicas experiencias nos impedirían seguramente ser justos e imparciales.

Reivindicamos la verdad, la justicia, la reparación y la garantía de no repetición de la violación sufrida de los derechos humanos. Si tanto el reconocimiento como la reparación, sea institucional, social e incluso, la menos importante para nosotras, económica, no van acompañados del derecho a

una justicia que conduzca hacia la verdad de los hechos, las heridas se cerrarían en falso. Para nosotrxs el dolor sufrido no tiene precio.

La historia debe recoger todos los relatos con imparcialidad y lo que, sobre todo, exigimos es que todas las víctimas de la violencia política de estos años tengamos los mismos derechos, sin clasificarnos en víctimas de primera o de segunda. Todos los derechos para todas las víctimas.

---

Espainiako Konstituzio Auzitegiak, azken egun hauetan, ebatzi du eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko foru legearen kontra Alderdi Popularrak jarritako errekurtsioa. Aipatu foru legea Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen aurreko legegintzaldiko hondarreko egunetan.

Epaiak, funtsean, kontrako lau boto izanik ere, legea indargabetzea dakar. Argudiatu dute ezen legeak, nolabait, zuzenbide-estatu ustezko honetako auzitegien eginkizuna ordezkatu nahi zuela, eta bide ematen zuela epaileen lanaz aparte funtzionario publikoek eta talde parapolizialek egindako delituak ikertzeko.

Lege hau, errekurtsioa jarri zitzaionean, etenik gelditu zen, salbu eta puntu bakar batzuetan: biktimei omenaldia egiteko aukera uzten zuen, eta beste gauza txikiren bat. Horrela, bada, 2017ko otsailaren 18an, omenaldi bat egin zen, eta familiarterko batzuek parte hartu genuen hartan. Hori bai, errekonozimendu ekitaldiak generikoa izan behar zuen, eta ez zen modurik izan espresuki kasurik edo izenik aipatzeko.

Sekula ez zen halako lege baten premiarik izanen baldin eta epaileek beren lana egin izan balute, hots, delitu-ekintzen errudunak bilatu, eta frogatutako delituari dagokion zigor bidezkoa ezarri. Hala ere, beste jokabide bat izan ohi dute: artxibatu egiten dituzte segurtasun-indarretako kideak inplikatuak dauden kasuak, edo, kasurik hoberenean, zigor irri-emangarri eta iraingarriak jartzen dizkiete, eta, azkenean, maiz, indultua eman.

Espero genuen Konstituzio Auzitegiaren epaia, baina berdin-berdin egin digu min duintasunean. Eta espero genuela diogu, gogoan dugulako nolako erabakiak hartu dituzten epaileek azkenaldi honetan: nazka eta higuina eragiterainoko epaiak. Hortxe dugu Altsasuko kasua, ostatu bateko liskarra urte askoko kartzela-zigorren eskaera bihurtuta, edo La Manadarena, taldean egindako bortxaketa sexu-abusu soil bihurtuta. Estatuko fiskaltzek halakoetara ohitu gaituzte: ofizioz jarduten dute zenbait adierazpenen kontra baldin eta monarkia edo gobernu aipatzen badira edo terrorismoaren ustezko gorespenik egiten bada, eta "ahantzi" egiten zaie talde eta elkarte faxisten eta eskuin muturrekoen kontra zer bait egitea.

Nafarroan gobernu aldaketa gertatzeak bukaera eman zion guk arlo instituzionalean jasandako ahanzturari, isiltasunari. Poztu gintuen bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen bulegoa ireki izanak. Gutako batzuek Nafarroako Parlamentura joan ginen, orain baliogabetu den legea sortzeko

prozesuan, gure kasuen berri ematera. Jakina, gure ustez, hobeia izan liteke arlo honetan Nafarroa Gobernuak egiten duen lana, Bake eta Bizikidetzako Zuzendaritza Nagusiak egiten duen lana, baina komunikazio-bide egonkorra dugu harekin, duela urte gutxi pentsaezina zen zerbait.

Ez da hala gertatzen Madrilgo gobernuarekin. Guretzat, berdin da nor dagoen gobernuan, beti ezezkoa erabatekoa ematen baitzaie gure eskakizunei, PSOEk eta PPK inpunitate-murrua eraiki baitute. Elkarri estaltzen dizkiote gerra zikinean edo estatu-terrorismoan egindako izugarrikeriak. Ez du axola nolako botoa eman duten Nafarroako Parlamentuan, alderdien zuzendaritzek eta Madrilen dituzten aliatuek beti kontrako erantzuna ematen baitute, beti traba.

Lege hau presaka onetsi zen UPN gobernuan zela, Yolanda Barcina lehendakaria zenean. Ez zen akatsik gabeko legea, bazuen zer hobetua, baina gure legea zen, Foru Parlamentuko gure ordezkariak onetsi zutena. Bidea irekitzen zen, errekonozimendua eta erreparazioa izateko ez ezik, justizia arruntak ahanzturan utzitako kasuak ikertzeko batzordeak egin zitezten. Artikulu gehientsuenak baliorik gabe uzteak eragina du poliziaren indarkeriaren biktima garenongan, bai, baina, bestalde, gure Parlamentuaren subiranotasunaren kontrako laidoa ere bada, eta, beraz, nafar guztion kontrakoa. Eta asko eta asko dira, bai, Madrilek errekurritutako lege nafarrak.

Guk ez dugu inola ere legegile bihurtu nahi, are gutxiago epaile, ez dugu eragin nahi polizien indarkeriaren biktimetzako etorkizuneko legeari buruzko erabakietan, baina entzun gaitzaten nahi dugu. Biktimok ez dugu parte hartu behar botere legegileari baizik ez dagozkion erabakietan. Biktimak beren biktimarioen epaile edo legegile izatea debekatua zegoen zuzenbide erromatarrean ere, eta bidezkoa zen: gure esperientzia tragikoak, segur aski, traba izanen lirerateke justuak eta inpartzialak izateko.

Egia, justizia eta erreparazioa nahi ditugu, baita giza eskubideei dagokienez sufritutako urraketak berriz ez gertatzeko bermea ere. Errekonozimenduari batera, erreparazioarekin batera –instituzionala, soziala eta ekonomikoa, hori gutxien inporta zaiguna izanik ere–, gertatutakoaren egiara daraman justizia izateko eskubiderik ez badugu, zauriak ez dira ongi itxiko. Guretzat, jasandako oinazeak ez du preziorik.

Historiak kontakizun guztiak bildu behar ditu, inpartzialtasunez, eta, batez ere, zera eskatzen dugu: azken urte hauetako indarkeria politikoaren biktima guzti-guztiok eskubide berberak izan ditzagula, lehenbiziko eta bigarren mailako biktimen arteko sailkapenik egin gabe. Eskubide guztiak biktima guztientzat.

Aitziber Berrueta, Ana Fernández, Argine Salanueva, Aingeru Cano, Begoña Castillo, Karlos Delas, M<sup>a</sup> José Gurmino, Javier Izura, Eneko Etxeberria, Nerea zabala, Fermín Rodríguez, Txaro Arregi y Begoña e Idoia Zabalza